



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko apirilaren 27a

35. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gogorarazten baitu Espainiako Bigarren Errepublika gogo demokratikoaren burutzapena izan zela, eta aitortzen baitu historiako aldi hark utzi zuen ondarea. Eledunen Batzarrak onetsia (3. or.).
- Adierazpen instituzionala, Ijitoen Herriaren Nazioarteko Eguna eta Nafarroako Ijitoen Erkidegoaren Eguna direla eta. Eledunen Batzarrak onetsia (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da aintzat har dezan Zangozako oinarrizko esku-aldeko kargu publikoen eta sendagileen eskaria, eta, hartara, zerbitzua berrezar dezan, azken hogeitun urteotan legez. Mozioa Erretiratzea (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, osasun garraioari eta haren kudeaketari buruzko egungo arazoak lantzen dituen lan-mahaiaren egoerari buruzkoa, María Chivite Navascués andreak egina (5. or.).
- Galdera, “Reyno de Navarra Arena” kiroldegirako kudeaketa-ereduari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (5. or.).
- Galdera, jakiteko zein den Nafarroako Gobernuaren jarrera ofiziala Espainiako Bankuaren lehendakariak Pentsio Publikoen Sistema aldatzeari buruz eginiko proposamena dela eta, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (6. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak nola jarriko dituen 120.000 euro gehiago Barañaingo Auditorioarekin izenpetua duen hitzarmenerako, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (7. or.).
- Galdera, jakiteko zein diren Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren benetako arrazoiak Aralarko San Migelen euskarazko izena ez jartzeko harako errepidean jarritako karteletan, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (7. or.).
- Galdera, Uxuera joateko errepide berrian izan diren luizien eta agertu diren arrakalen arrazoiei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (8. or.).
- Galdera, jakiteko ea Hezkuntza Departamentuak CREENA Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroko zerbitzuak birmoldatzeko asmoa daukan, María Luisa Mangado Cortes andreak egina (9. or.).

- Galdera, gaizkata haztearen gaineko proiektuari, ekoizpenari eta ingurumen-azterlanei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (9. or.).
- Galdera, San Martin Unx eta Uxue arteko N-5310 errepide berrian eginiko lanei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (10. or.).
- Galdera, N-1 errepidearen ibilbide zaharreko bazterrak, Altsasuko dermioan, garbitzeko kontuei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (11. or.).
- Galdera, atzerriko hizkuntza bateko sakontze ikastaroak egiten dituzten irakasleei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (11. or.).
- Galdera, “Reyno de Navarra Arena” kiroldegia dela-eta eginiko azterlanei buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (12. or.).
- Galdera, Saratsako zahar-etxeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik ez den Zaintzako atalbururik izendatu Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusian eta Nafarroako Gobernuak asmorik duen basozainen berariazko araubidea erregulatzen duen foru dekretua garatzeko. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Nafarroa 2008-2012 planean “Zehaztu gabeko beste inbertsio batzuk” izenarekin jasotako finantzaketa-formulari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, jakiteko Gobernuak zer asmo duen diru publikoen kutxan sartuko ez diren milioika euroak beste bideren batetik berreskuratzeko buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Nafarroa 2008-2012 planean “Beste finantzaketa iturri batzuk” izenarekin jasotako finantzaketa-formulari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, aurrekontu orokorretan jasotako Nafarroa 2008-2012 planaren finantzaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Nafarroa 2008-2012 planean “Autofinantzaketa eta hirugarrenei eginiko salmentak” izenarekin jasotako finantzaketa-formulari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako aurrekontu orokorrei buruzko Foru Legean Nafarroa 2008-2012 planari lotuta agertzen diren kontusailetatik zeintzuek jasanen duten Gobernuak iragarritako gastuen mugatze edo murrizketa politika. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean Nafarroa 2008-2012 plana finantzatzeko aurreikusita dagoen zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuko Departamentu bakoitzean abuztuaren 1ean dagoen behin-behineko langileen kopuruari eta langile horiek egiten duten ehunekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Moderna plan estrategikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, jakiteko ablazioa jasandako zenbat emakume detektatu dituzten osasun sistema publikoan. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, zerbitzu zorroari buruzko zenbait argitalpeni buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, Nafarroako erakundeei itzaleko dirusarien kontzeptuarengatik ordaintzeko gelditzen zaizkien baliabideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Nafarroako enpresa publikoen multzoak gaur egun duen zorrari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, 2007-2008 eta 2008-2009 ikasturteetako zenbait eskola-daturi buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, Xabier Zubiri Eskualdeko Ikastetxe Publikoaren errotulazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, jakiteko zenbat enpresa sortu diren 2005, 2006 eta 2007. urteetan, zenbat lanpostu sortu diren, zein jarduera-sektoretan jarduten duten eta non dauden. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, Funes aldean Arga ibaira botatzen diren hondakinei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gogorazten baitu Espainiako Bigarren Errepublika gogo demokratikoaren burutzapena izan zela, eta aitortzen baitu historiako aldi hark utzi zuen ondarea.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2009ko apirilaren 20an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak gogorazten du Espainiako Bigarren Errepublika izan zela Espainiako politika berrikuntza etiko, politiko eta sozialaren bidez birsortzeko gogo demokratikoaren burutzapena, bai eta antolamendu politikoari buruz Espainian eginiko lehen esperientzia demokrati-

koa ere, zeina gerra zibil odoltsu bat ekarri zuen estatu kolpe batek zapuztu baitzuen.

Nafarroako Parlamentuak aitortzen du historia-ko aldi hark gaur egungo estatu demokratikorako utzi zuen ondarea, askatasun, berdintasun eta senidetasun balioetan oinarritua.”

Iruñean, 2009ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Adierazpen instituzionala, Ijitoen Herriaren Nazioarteko Eguna eta Nafarroako Ijitoen Erkidegoaren Eguna direla eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2009ko apirilaren 20an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Ijitoen Herriaren Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin eta, bereziki, Nafarroako Ijitoen Erkidegoaren Eguna ospatzen du; era berean, aitortzen du erkidego hori garrantzitsua dela Nafarroako herritarren artean eta, horrenbestez, gainerako herritarrek dituzten eskubide eta betebeharrak berak dituztela. Erkidego horrek kultura-nortasun berezkoa eta berezia du, eta horrek gure gizarte gero eta anitzagoa aberastu egiten du.

2. Nafarroako Parlamentuak zainduko du egiaz betetzen direla erkidego hori gizarte bizitzako arlo desberdinetan integratzea eta normalizatzea laguntzen duten legeak.

3. Nafarroako Parlamentuak ijitoen elkarrekin egiten duten lana sustatuko du, ijito erkidegoa normalizatzen eta gizartearen integratzen laguntzen baitu, eta hori onuragarria da herritar guztientzat.

4. Nafarroako Parlamentuak ijito herriaren irudi hobea eta egiazkoagoa zabaltzen lagunduko duten politikak sustatzeko konpromisoa hartzen du, horrela gaur egun oraindik dirauten estereotipo eta aurreiritziak deuseztatzeko.

5. Nafarroako Parlamentuak herritar guztiei dei egiten die ospakizun hauekin lotuta antolatzen diren ekitaldi guztietan parte hartzera.”

Iruñean, 2009ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aintzat har dezan Zangozako oinarrizko eskualdeko kargu publikoen eta sendagileen eskaria, eta, hartara, zerbitzua berrezar dezan, azken hogeitun legez.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Osasun Batzordeak, 2009ko apirilaren 21ean egindako bileran, erabaki zuen Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko ondoko mozioa erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea: "Nafarroako Gobernua premiatzen da aintzat har dezan Zangozako oinarrizko eskualdeko kargu publikoen eta sendagileen eskaria, eta,

hartara, zerbitzua berrezar dezan, azken hogeitun legez".

Mozio hori 2009ko martxoaren 6ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, osasun garraioari eta haren kudeaketari buruzko egungo arazoak lantzen dituen lan-mahaiaren egoerari buruzkoa.

MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, osasun garraioari eta haren kudeaketari buruzko egungo arazoak lantzen dituen lan-mahaiaren egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite

Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuak, 2009ko otsailaren 12an eginiko Osoko Bilkuran, aho batez onetsi zuen Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen mozio bat, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen lan-mahai bat sor zezan, osasun garraioaren arazoak aztertu eta antolamendu eta/edo kudeaketa eredu berriari heltzeko.

Ekimen hori onetsi zenetik bi hilabete igaro direnez, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak hau jakin nahi du:

Zein da, gaur egun, lan-mahai horren egoera?

Iruñean, 2009ko apirilaren 15ean

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, “Reyno de Navarra Arena” kiroldagirako kudeaketa-ereduari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, “Reyno de Navarra Arena” kiroldagirako kudeaketa-ereduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuo Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

“Reyno de Navarra Arena” kiroldegia buruzko galdera.

• Zein da “Reyno de Navarra Arena” kiroldegira-ko hautatu den kudeaketa-eredua?

• Oraindik ez bada erabaki, zeintzuk dira dauden aukerak?

• Noiz hartuko da erabaki garrantzitsu hori?

Iruñean, 2009ko apirilaren 15ean

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, jakiteko zein den Nafarroako Gobernuaren jarrera ofiziala Espainiako Bankuaren lehendakariak Pentsio Publikoen Sistema aldatzeari buruz eginiko proposamena dela eta.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zein den Nafarroako Gobernuaren jarrera ofiziala Espainiako Bankuaren lehendakariak Pentsio Publikoen Sistema aldatzeari buruz eginiko proposamena dela eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2009ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko eledun Ion Erro Armendarizek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko ahozko galdera aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena:

Iragan astean Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariak eginiko adierazpenak, pentsio-sistema aldatzeko beharrari buruzkoak, direla-eta, hau jakin nahi dut:

Zein da Nafarroako Gobernuaren jarrera ofiziala Espainiako Bankuaren lehendakariak Pentsio Publikoen Sistema aldatzeari buruz eginiko proposamena dela eta?

Iruñean, 2009ko apirilaren 20an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak nola jarriko dituen 120.000 euro gehiago Barañaingo Auditorioarekin izenpetua duen hitzarmenerako.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak nola jarriko dituen 120.000 euro gehiago Barañaingo Auditorioarekin izenpetua duen hitzarmenerako.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako

galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2009ko apirilaren 4an prentsan agertutako informazio baten arabera, Nafarroako Gobernuak 200.000 euro emanen dizkio Barañaingo Auditorioari. Horren inguruan, gogorazi behar da 2009ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretan A2500 A20002 4816 335112 "Barañaingo Auditorioarekiko hitzarmena" izeneko kontusaila agertzen dela, 80.000 euro dituen.

Nafarroako Gobernuak eta gune horretako kudeatzaileek eginiko lehen finantzaketa-hitzarmenean aipatu 80.000 euroko kontusaila ezartzen da, beste 120.000 euroekin osatuko dena.

Hori dela-eta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Nafarroako Gobernuak nola jarriko ditu 120.000 euro gehiago Barañaingo Auditorioarekin izenpetua duen hitzarmenerako?

Iruñean, 2009ko apirilaren 6an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, jakiteko zein diren Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren benetako arrazoiak Aralarko San Migelen euskarazko izena ez jartzeko harako errepidean jarritako karteletan.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zein diren Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren benetako arrazoiak Aralarko San Migelen euskarazko izena ez jartzeko harako errepidean jarritako karteletan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Kultura eta Turismo Departamentuak Aralarko San Migelerako bidean jarritako kartel berriak gaz-

telaniaz bakarrik daude. Kontuan hartuta eskualde hori eremu euskaldunean dagoela, hauxe jakin nahi dut:

Zergatik ez da jarri Aralarko San Migelen euskarazko izena kartel horietan?

Iruñean, 2009ko apirilaren 6an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Uxuera joateko errepide berrian izan diren luizien eta agertu diren arrakalen arrazoiei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Uxuera joateko errepide berrian izan diren luizien eta agertu diren arrakalen arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko

Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Duela zazpi hilabete ireki zen San Martin Unx eta Uxue arteko N-5310 errepide berria. Irailean inauguratu zenetik luiziak izan dira Uxuerako errepidearen ezker aldean, eta eskuinaldean, berriz, arrakalak agertu dira. Dirudenez, kalteak errepideko hiru puntu desberdinetan agertu dira eta, antza denez, arrakalak ikus daitezke 1. kilometroan, Cruz del Salado izeneko gunetik gertu dagoen betegarri-eremu batean, eta 6. kilometroan.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

Zeintzuk dira Uxuera joateko errepide berrian luiziak izatearen eta arrakalak agertzearen arrazoiak?

Iruñean, 2009ko apirilaren 7an.

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, jakiteko ea Hezkuntza Departamentuak CREENA Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroko zerbitzuak birmoldatzeko asmoa daukan.

MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa Mangado Cortes andreak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Hezkuntza Departamentuak CREENA Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroko zerbitzuak birmoldatzeko asmoa daukan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari María Luisa Mangado Cortesek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu dio Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Zurumurraren arabera, Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroak ematen dituen zerbitzuek orientazio aldaketa sakona izanen dute. Hori dela eta, parlamentari honek jakin nahi du:

– Hezkuntza Departamentuak ba al du CREENA Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroko zerbitzuak birmoldatzeko asmorik?

– Hala bada, zehaztu zer aldaketa izanen diren horiek eta zer sektore, erakunde eta abar ari diren aldaketa horietan parte hartzen.

Iruñean, 2009ko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: María Luisa Mangado Cortes

Galdera, gaizkata haztearen gaineko proiektuari, ekoizpenari eta ingurumen-azterlanei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, gaizkata haztearen gaineko proiektuari, ekoizpenari eta ingurumen-azterlanei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaión:

Piscifactoría de Sierra Nevada Granadako enpresak, Caviar de Riofrío marka ekoiztu eta merkaturatzen duenak, bi arrain-haztegi erosi zituen Nafarroan –bata Esan eta bestea handik 60 kilometrorra–, gaizkata hazteko eta haien arrabetatik ateratzen den kabierra ekoizteko.

2008ko maiatzaren 12an, Baluarteen eginiko *Barazkiak bizi* Batzarrean, ofizialki aurkeztu zen *Erresumako kabierra* marka.

Esako instalazioetan, non duela mende erdia hasi ziren amuarrainak hazten, tamaina desberdineko 120.000 gaizkata biziko dira. Hazkuntza hiru alditan egingen da: lehenengo bietan, gaizkata eme helduak eramanen dira eta horien hazkuntza eta ekoizpena aztertuko dira. Hirugarren aldia –2011ko urrian, aurreikusten denez–, asmoa da enpresaren produkzio osoa Nafarroan egitea, Esako uretan hazitako animaliekin.

Lehenengo gaizkata emeak 2008ko maiatzean hasi ziren ekartzen Nafarroako arrain-haztegia. Nafarroan abian jarri den esperientzia hau *Acipenser naccarii* (Adriatikoko gaizkata) espeziean oinarritu da, eta Esako arrain-haztegia dagoen tokia Europar Batasunaren Intereseko Lekua da.

Kontuan hartuta egoera hori eta *Acipenser naccarii* (Adriatikoko gaizkata) espeziea ez dela bertako espezie bat, parlamentari honek hau jakin nahi du:

–Zer azterlan egin dira eta zer neurri hartuko dira *Acipenser naccarii* (Adriatikoko gaizkata) gaizkata motak Europar Batasunaren Intereseko Leku batean ingurumenari eragin ahal dizkion kalteen inguruan?

– Zein da produkzioaren egungo egoera?

– Proiektuaren espedientearen kopia jaso nahiko nuke.

Iruñean, 2009ko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, San Martin Unx eta Uxue arteko N-5310 errepide berrian eginiko lanei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, San Martin Unx eta Uxue arteko N-5310 errepide berrian eginiko lanei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako

galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Duela zazpi hilabete ireki zen San Martin Unx eta Uxue arteko N-5310 errepide berria. Irailean inauguratu zenetik luiziak izan dira Uxuerako errepidearen ezkerrean, eta eskuinaldean, berriz, arrakalak agertu dira. Dirudenez, kalteak errepideko hiru puntu desberdinetan agertu dira eta, antza denez, arrakalak ikus daitezke 1. kilometroan, Cruz del Salado izeneko gunetik gertu dagoen betegarri-eremu batean, eta 6. kilometroan.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

1. Horrek eraginik izanen al du ibilgailuen trafikoan?

2. Zer neurri zuzentzaile hartuko dira?

3. Arazo horiek direla-eta aldatuko al da lanen hasierako aurrekontua?

Iruñean, 2009ko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, N-1 errepidearen ibilbide zaharreko bazterrak, Altsasuko dermioan, garbitzeko kontuei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, N-1 errepidearen ibilbide zaharreko bazterrak, Altsasuko dermioan, garbitzeko kontuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari Kultura eta Turismo Departamentuari, idatziz erantzun diezai-on:

Altsasuko Udalak salatu duenez, N-1 zaharren errepide-bazterrak eta autobiatik herrirako sarbideetakoak utzita daude eta bertan ez dira egiten garbiketa eta mantentze lanak. Iragan martxoaren 23an, Udalak, alkatearen ebazpen baten bidez, eskatu zion Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari, 15 eguneko epean garbitu eta txukuntzeko aipatu bazterrak. Epe hori bete da, baina oraindik zabor ugari ikus daiteke N-1 errepideko bazterretan eta inguruetan, bereziki Ulaiar eta Erkuden arteko errepide zaharraren bazterretan.

Hori dela-eta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1. Zeintzuk dira errepide horrek jasaten duen utzikeriaren arrazoiak?

2. Zer enpresak du errepidea garbitzeko ardurara?

3. Garbiketa enpresaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko hitzarmenaren kopia jaso nahiko nuke.

4. Zergatik ez zaio erantzun Altsasuko Udalaren eskaerari?

Iruñean, 2009ko apirilaren 14an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, atzerriko hizkuntza bateko sakontze ikastaroak egiten dituzten irakasleei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, atzerriko hizkuntza bateko sakontze ikastaroak egiten dituzten irakasleei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari María Luisa Mangado Cortesek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkezten dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

- Zenbat irakaslek egin dituzte edo egiten ari dira atzerriko hizkuntza bateko sakontze ikastaroak? Zehaztu zein ikastetxetakoak eta zein hizkuntza ereduak (A, British, D,G) diren irakasle horiek.

- Zer zentrotan edo herrialdetan egin dituzte edo egiten ari dira ikastaro horiek?

- Zer irizpide erabili da irakasle horiek hautatzeko?

- Zein da ikastaro horien kostua pertsona bakoitzeko? Kostu hori moduluen arabera xehakitzea nahiko nuke.

Iruñean, 2009ko apirilaren 16an

Foru parlamentaria: María Luisa Mangado

Galdera, “Reyno de Navarra Arena” kiroldegia dela-eta eginiko azterlanei buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, “Reyno de Navarra Arena” kiroldegia dela-eta eginiko azterlanei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Galdera, Reyno de Navarra Arena kiroldegiari buruzko azterlanei buruzkoa.

- Balizko ikusle kopuruari buruzko zer azterlan egin dira Reyno de Navarra Arena kiroldegiaren edukiera erabakitzeko, Iruñaren antzeko tamainako hiriek dituzten kiroldegien alderaketaz gain?

- Zer azterlan egin dira Reyno de Navarra Arena kiroldegiaren bideragarritasun ekonomikoari buruz?

Iruñean, 2009ko apirilaren 15ean

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Saratsako zahar-etxeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Saratsako zahar-etxeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 26ko 81. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak Saratsako zahar-etxeari buruzko galdera egin du (273-08 idatzizko galdera). Hona hemen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Eceolaza jaunak Saratsako Ciudad Jardín zahar-etxeari buruzko galdera batzuk egin ditu.

Departamentu honetako Kalitate eta Ikuskapen Zerbitzuak dituen datuen arabera, zahar-etxe horretan, 2007 urtean, mendekotasunik gabeko 37,42 erabiltzaile egon dira batez beste, eta laguntza behar duten beste 36,46 pertsona.

Azaroaren 13ko 9/1990 Foru Legea garatzearen sortu zen maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretuak xedatutakoaren arabera eta 2007ko okupazioa aintzat hartuz, mendekotasunik ez duten erabiltzaileei arreta zuzena emateko 3,74 langile beharko lirateke, eta laguntza behar dutenentzat beste 12,76 langile. Beraz, arreta zuzena emateko 16,50 langile beharko lirateke guztira.

Zahar-etxeako langileen kontratuak, nominak eta Gizarte Segurantzako kotizazio-agiriak ikusita, ondoriozta daiteke 20,45 langile aritu zirela, batez beste, arreta zuzena ematen 2007an.

Beraz, maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretuak agindutakoa baino 3,95 langile gehiago. Dokumentazioan ageri ez diren baja laburrak eta ordaindutako baimenak %10eraino iritsi zitezkeela

jota ere, 1,90 langileko superabita agertuko litzateke.

Beste gai bati erreparatuz, zahar-etxearen kudeaketaz arduratzen den erakundeak ez du egiztatu erizaintzan diplomatutako langileak beti egoten direnik.

Itundutako plazei buruz, esan behar da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek ez dutela itundutako plazarik Saratsako Ciudad Jardín zahar-etxean.

Zahar-etxe pribatua denez Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak ez dauka informaziorik erabiltzaileek ordaindutako prezioei buruz.

Azkenik, Departamentu honek egindako ikuskaritzari dagokionez, esan behar da 2008an ikuskapen-bisitak egin direla Saratsako Ciudad Jardín zahar-etxean honako egun hauetan:

- Martxoak 28 (bisita goizean, 14. akta)
- Ekainak 13 (bisita goizean, 224. akta)
- Ekainak 27 (bisita goizean, 309. akta)
- Irailak 11 (bisita gauean, 340. akta)
- Irailak 11 (bisita arratsaldean, 341. akta)

Ikuskapen-bisita horietan hainbat hutsune nabarmendu dira zahar-etxean, oro har, azpiegituraren egoeran, ekipamenduan, garbitasunean eta segurtasunean.

Ikusita hutsune horiek guztiak arau-hausteak izan daitezkeela, zigor-espedita bideratu da Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren aginduz, urriaren 2ko 380/2008 Foru Aginduaren bidez, ustezko arau-hauste oso larri bat eta bi arau-hauste larri egiteagatik. Gainera, kautelazko neurri gisa, aldi batean zahar-etxe horrek ezin izanen ditu erabiltzaile berriak hartu.

Iruñean, 2008ko urriaren 13an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, jakiteko zergatik ez den Zaintzako atalbururik izendatu Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusian eta Nafarroako Gobernuak asmorik duen basozainen berariazko araubidea erregulatzen duen foru dekretua garatzeko.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Gracia Iribarren Ribas andreak galdera egin du jakiteko zergatik ez den Zaintzako atalbururik izendatu Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusian eta Nafarroako Gobernuak asmorik duen basozainen berariazko araubidea erregulatzen duen foru dekretua garatzeko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 26ko 81. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako María Gracia Iribarren Ribas andreak galdetu du zer arrazoiengatik ez den izendatu Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko Ingurumena Zaintzeko Ataleko burua, eta zer asmo duen Gobernuak basozainen erregimen espezifiko arautzeko Foru Dekretua garatzeari buruz (285/08 idatzizko galdera). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

2008 urtean zehar Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak lehentasuna eman die basozaintzako lanpostu hutsak bai aldi baterako bai behin-betiko betetzeko ahaleginei eta antolaketarekin zerikusia duten gainerako gaiei: taldeak eratzea, langile gehienak lanpostuen izen berrietara egokitzea, mugape bakoitzeko bulegoak antolatzea, sartzeko deialdiak prestatzea eta garatzea, etab.

Une hauetan, Ingurumena Zaintzeko Ataleko buruaren izendapena dugu aztergai, eta urtea

amaitu baino lehen lanpostu hori beteta izatea espero dugu.

Foru Dekretua garatzen ari da dagoeneko, neurri hauen bidez:

– 132/2005 Foru Dekretuaren 3. artikulua 5. puntuan aipatzen diren mugapeak urtarrilaren 3ko eta 26ko 7/2006 eta 29/2006 Foru Aginduen bidez zehaztu ziren.

– 2006an eta 2007an aplikatu dira 132/2005 Foru Dekretuaren lehenengo eta bigarren xedapen iragankorrak, hainbat lanpostutako langileei buruzkoak: ingurumenzainak, mendi zaindarioak, ingurumenzain nagusiak eta mendi zaindaria.

– Funtzio Publikoaren Zuzendari Nagusiak emandako ebazpenaren bidez (otsailaren 19ko 504/2007 ebazpena) onetsi zen lehiaketa-oposizio deialdia egitea 28 basozain lanpostu betetzeko, 132/2005 Foru Dekretuaren hirugarren xedapen iragankorrak (4/2007 Foru Dekretuaren bidez luzatua) agindutakoaren arabera. Lehiaketa-oposizio hori amaitu da eta funtzionario berrien izendapenerako proposamenaren zain gaude.

– Txanda murriztutako oposizio-lehiaketaren edukia prestatu da, aipaturiko Foru Dekretuaren 7. artikulua 4. atalean xedatutakoaren arabera. Lehendakaritza Departamentua deialdiaren prestateta-lanak amaitzen ari da eta berehala gauzatu da lehiaketa-oposizioa.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko urriaren 14an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, Nafarroa 2008-2012 planean “Zehaztu gabeko beste inbertsio batzuk” izenarekin jasotako finantzaketa-formulari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroa 2008-2012 planean “Zehaztu gabeko beste inbertsio batzuk” izenarekin jasotako finantzaketa-formulari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 26ko 81. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du “Definitzeko dauden beste inbertsioak” kontzeptuaren definizioa argitzeko urratsak eman diren jakitearren. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Nafarroa 2012 Planak, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak 2008ko maiatzaren 23an onartuak, finantzaketa guztiaren berri ematen du: 4.508,9 miloi euro guztira.

Finantzaketa-aurreikuspen horretan zehazten dira beharrezko baliabide ekonomikoen iturriak. Haien artean ageri da Nafarroako Gobernuaren programazio ekonomikoa 2008-2011 aldirako, 1.144 miloi eurokoa. Halaber, 92,9 miloi euroko lerroa ere ageri da aplikatzeko dauden inbertsioetarako, Gobernuaren programazio ekonomikoaren arabera.

Nafarroako Gobernuaren programazio ekonomikoa urteroko aurrekontuetan zehazten da, Nafarroako Aurrekontu Orokorrak onesten direnean. Beraz, aurrekontu horietan sartuko dira Nafarroa 2012 Planean ageri diren Garrantzi Handiko 90 Jarduketan inbertsio osagarriak, hala badagokio eta Nafarroako Parlamentuak onesten baditu.

Iruñean, 2008ko urriaren 14an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, jakiteko Gobernuak zer asmo duen diru publikoen kutxan sartuko ez diren milioika euroak beste bideren batetik berreskuratzeko buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du jakiteko Gobernuak zer asmo duen diru publikoen kutxan sartuko ez diren milioika euroak beste bideren batetik berreskuratzeko buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 26ko 81. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du, "400 euroen neurria" dela eta eskuratuko ez diren 63 milioi euro kontuan hartuta, "Nafarroako Gobernuak bestelako bideetatik berreskuratzea aurreikusi duen" diru-kopuruari buruz (289. idatzizko galdera). Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

2009-2012 aldian Nafarroako ekonomia biziberritzeko neurrien Foru Lege Proiektuak aldaketa bat egiten du Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Legearen Testu Bateginean: 62. artikulua 5. idatz-zatian, hain zuzen. Aldaketa

horren bidez, subjektu pasiboen laneko etekinak zenbat eta handiagoak izan, orduan eta txikiagoa izanen da kenkaria. Aipaturiko foru lege proiektuaren arrazoien azalpenean adierazi bezala, hiru helburu lortu nahi dira:

1. Laneko etekinen zerga-tratamendua hobetzea, eta, gainera, zerga hori egokiagoa eta zuzenagoa izatea.

2. Zergen mailakatzea areagotzea, kenkariak handitzeak mesede egiten baitie laneko etekin txikiak dituztenei; aldiz, eskalako maila altuagoetan sartzearekin batera, kenkariak murrizten dira. Helburu horretarako, kenkariaren kalkulua egiteko lau maila ezartzen dira, oraingo hiru mailen ordean.

3. Familiak erabil dezaketen errenta handitzea. Kenkariak handiagoak izan direnez, zergapeko pertsonak baliabide ekonomiko gehiago izanen dituzte. Hartara, barne-eskaria handituko da, bai kontsumorako, bai inbertsioak egiteko; produkzioa suspertuko da eta jarduera handiagoa eragingen da.

Beraz, Nafarroa Bai parlamentu-taldearen galderak hala pentsarazten badu ere, neurriaren helburua ez da ezkutuko zerga-bilketa egitea.

Iruñean, 2008ko urriaren 14an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, Nafarroa 2008-2012 planean “Beste finantzaketa iturri batzuk” izenarekin jasotako finantzaketa-formulari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroa 2008-2012 planean “Beste finantzaketa iturri batzuk” izenarekin jasotako finantzaketa-formulari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 26ko 81. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du “Bestelako finantzaketa-iturriak” zehaztea eta haien egungo egoera azaltzea eskatzeko (290. idatzizko galdera). Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Nafarroa 2012 Planaren xehetasun-tauletan (Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren 49. zenbakia, 2008ko maiatzaren 29koa) azaltzen da “Bestelako finantzaketa-iturriak” epigrafearen zatirik handienak erakunde hauei dagozkiela: Iruñerriko Abiadura Handiko Trenaren Udalez gaindiko Plan Sektorialerako Patzuergoa (130.000 mila euro; hirigintza-aprobetxamenduak jasotzen ditu) eta TAA-Iruñerriko Abiadura Handiko Trenaren Udalez gaindiko Plan Sektorialerako Patzuergoa (105.000 mila euro, Trenbide Azpiegituren Administrazioak egin beharreko finantzaketatik).

Gainera, epigrafe horretan jasota daude beste finantzaketa-bideak: ekarpen pribatuak, saneamendu-kanona eta aldi bateko ondare-ekarpenak etxebizitza bioklimatikoaren lursailetan. Han zehaztutako kopuruetan ez da oraingoz aldaketarik egin.

Iruñean, 2008ko urriaren 14an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, aurrekontu orokorretan jasotako Nafarroa 2008-2012 planaren finantzaketari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du aurrekontu orokorretan jasotako Nafarroa 2008-2012 planaren finantzaketari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 26ko 81. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdetu du “Nafarroa 2008-2012 Plana” Nafarroako Aurrekon-

tu Orokorren bidez nola finantzatuko den eta urtero esleitu beharreko diru-kopurua zenbatekoa izatea aurreikusitako duten (PES-291 galdera idatzia). Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Nafarroa 2012 Plana onetsi zen Nafarroako Aurrekontu Orokorren bidez 1.144 milioi euro finantzatuko zirela aurreikusitako. Kopuru hori Planak irauten duen urteetan esleitu da. Urte bakoitzari dagokion diru-kopurua Nafarroako aurrekontu orokorretan zehaztu da, premiak eta egin beharreko gastuak aintzat hartuta, eta Nafarroako Parlamentuak onetsi beharko ditu, hala irizten badiu.

Iruñean, 2008ko urriaren 14an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, Nafarroa 2008-2012 planean “Autofinantzaketa eta hirugarrenei eginiko salmentak” izenarekin jasotako finantzaketa-formulari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroa 2008-2012 planean “Autofinantzaketa eta hirugarrenei eginiko salmentak” izenarekin jasotako finantzaketa-formulari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 26ko 81. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroa 2008-2012 Plana finantzatzeko “Autofinantzaketa (eta salmentak hirugarrenei)” epigrafeari eta formula horren bidez finantzatuko den proiektu bakoitzaren zenbatekoari buruz (PES-292). Eskatutako informazioa jasotzen duen taula dago honekin batera.

Iruñean, 2008ko urriaren 14an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

NAFARROA 2012 PLANA: Autofinantzaketa bidez eta hirugarrenei salmentak eginez finantzatzeko proiektuak	euroak, milakotan
Urbanizazioa eta eraikinak Tuterako plataforma logistikoan	47.200,0
Urbanizazioa eta eraikinak beste plataforma logistikoetan	23.800,0
Iruñeko Garraioaren Hiria, S.A. 3. eta 4. fasea	89.278,0
Ondare Historiko-Artistikoaren Fundazioa	10.235,0
Fiteroko Monasterioa zaharberritzea	3.750,0
Uxueko Santa Maria. Abade-etxea, barnealdea eta 4. fasea	2.895,0
Beste proiektu batzuk	3.590,0
Mintegiak eta Basoberritzeak, S.A.	300,0
Beste proiektu batzuk	300,0
Natural Climate Systems, S.A. MIYABI	8.049,00
110 etxebizitza domotiko-bioklimatikoren sustapena	8.049,00
Nasuinsa	56.583,0
IKTen hiria. Gariton - Nafarroako Unibertsitate Publikoa	300,0
Izarbeibarko industrialdea	2.286,0
Elortzibarko industrialdea	1.291,1
Urdiaingo industrialdea	493,6
Noaingo industrialdea (lehen Posusa zena)	750,0
Lodosako industrialdea	350,9
Corteko industrialdea	3.873,7
Rocaforteko industrialdea (Zangoza). Handitzea	84,4
Irunberriko industrialdea	1.225,0
Artaxoko industrialdea	62,2
Deikazteluko industrialdea	1.224,0
Beste proiektu batzuk	44.642,1
NASURSA	4.275,0
Beste proiektu batzuk	4.275,0
SODENA	3.300,0
Mendillorriko jauregia	3.300,0
SPRIN, S.A.	246.079,0
Los Arcosko abiadura handiko zirkuitua	15.738,9
Erronkaribarko ipar-eski zentroa	1.361,0
Errepideak azkartzeko plana	223.129,1
Tuterako nekazaritza-elikagaien hiria	5.850,0
TRACASA	4.947,0
Tracasaren eraikin nagusia	4.947,0
VINSA	64.818,0
2.500 etxebizitzaren zuzeneko sustapena	64.818,0
Canal de Navarra, S.A.	68.487,0
Nafarroako ubidea	68.487,0
GUZTIRA	627.351,0

Galdera, jakiteko Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko Foru Legean Nafarroa 2008-2012 planari lotuta agertzen diren kontusailetatik zeintzuek jasanen duten Gobernuak iragarritako gastuen mugatze edo murrizketa politika.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du jakiteko Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko Foru Legean Nafarroa 2008-2012 planari lotuta agertzen diren kontusailetatik zeintzuek jasanen duten Gobernuak iragarritako gastuen mugatze edo murrizketa politika.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 26ko 81. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du, "gastuen euste-politika pairatuko duten" kontusaileri buruz (PES-293). Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Gaur egun, Nafarroako Gobernuaren aldi bateko gastu-erreserbak ez du eraginik Nafarroa 2012 Planeko aurrekontu-sailetan.

Iruñean, 2008ko urriaren 14an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, Nafarroako Aurrekontu Orokorreari buruzko Foru Legean Nafarroa 2008-2012 plana finantzatzeko aurreikusita dagoen zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako Aurrekontu Orokorreari buruzko Foru Legean Nafarroa 2008-2012 plana finantzatzeko aurreikusita dagoen zenbatekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 26ko 81. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin

du Nafarroa 2012 Planaren arabera finantzatu beharreko diru-kopuruari buruz (PES-294). Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Nafarroa 2012 Planak 4.508 milioi euroko inbertsio publikoa aurreikusten du. Nafarroako Gobernuaren, Foru Komunitateko enpresa-sektore publikoaren eta Nafarroaren eta Estatuaren arteko lankidetzaren bidez gauzatu behar da inbertsio hori 2008-2011 aldian.

2008ko Aurrekontu Orokorreari dagokien diru-kopurua 6. kapituluan ageri da: Inbertsio errealak. 284,55 milioi euro egiten du gutzira.

Iruñean, 2008ko urriaren 14an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, Nafarroako Gobernuko Departamentu bakoitzean abuztuaren 1ean dagoen behin-behineko langileen kopuruari eta langile horiek egiten duten ehunekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuko Departamentu bakoitzean abuztuaren 1ean dagoen behin-behineko langileen kopuruari eta langile horiek egiten duten ehunekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera batzuk egin ditu 2008ko abuztuaren 1ean Nafarroako Gobernuko departamentuetan kontratatutik zeuden aldi bateko langileei buruz (238-249 idatzizko galderak). Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

– 2008ko abuztuaren 1ean, honako langilekopuru hauek kontratatutik zeuden Foru Komunitateko Administrazioaren departamentu bakoitzean, erakunde autonomoetakoak barne (plaza hutsak, egiturazkoak edo ordezkapenak diren zehaztuz):

	Aldi baterako kontratuak				
	Plaza hutsak	Egituraz-koak	Ordezkapenak. Betetako lanpostuak	Ordezkapenak. Erreserbatutako lanpostuak	Guztira
Lehendakaritza, Justizia eta Barne Dep.	199,87	216,00	52,67	58,00	526,54
Ekonomia eta Ogasuna	36,50	6,00	3,00	21,00	66,50
Tokiko Administrazioa	5,00	0,00	0,00	2,67	7,67
Lurraldearen Antolamendua eta Etxebizitza	4,00	0,00	0,00	5,00	9,00
Hezkuntza	221,47	1.828,64	216,16	108,37	2.374,63
Osasuna	922,52	1.286,19	1.334,31	606,37	4.149,39
Herri Lana, Garraioa eta Komunikazioa	43,00	0,00	0,00	5,00	48,00
Landa Garapena eta Ingurumena	114,5	0,00	7,67	20,67	142,83
Berrikuntza, Enpresa eta Enplegua	13,67	0,00	3,00	13,00	29,67
Familia, Gazteria, Kirola eta Gizarte Gaiak	218,51	50,18	193,50	40,67	502,85
Kultura eta Turismoa – Vianako P.	51,98	4,00	8,36	10,00	74,34
Erakundeekiko Harremanak	13,50	0,50	1,33	6,67	22,00
GUZTIRA	1.844,51	3.391,51	1.819,99	897,40	7.953,41

*Kopuruek dezimalak dituzte: aldi bateko kontratuen kopuruak zenbatzean, lanaldi osoak unitate gisa zenbatu dira eta lanaldi murriztuak bakoitzari dagokion zatiki gisa.

– Departamentu bakoitzean aldi baterako kontratatutako langileen ehunekoak honako hauek ziren 2008ko abuztuaren 1ean:

<i>Departamentua</i>	<i>Aldi baterako kontratua duten langileak</i>				
	<i>Plaza hutsak</i>	<i>Egiturazkoak</i>	<i>Ordezkapenak. Okupatutako lanpostuak</i>	<i>Ordezkapenak. Erreserbatutako lanpostuak</i>	<i>Guztira</i>
Lehendakaritza, Justizia eta Barne Dep.	% 7,48	% 8,08	% 1,97	% 2,17	% 19,70
Ekonomia eta Ogasuna	% 7,44	% 1,22	% 0,61	% 4,28	% 13,55
Toki Administrazioa	% 8,17	% 0,00	% 0,00	% 4,36	% 12,53
Lurraldearen Antolamendua eta Etxebizitza	% 5,63	% 0,00	% 0,00	% 7,04	% 12,68
Hezkuntza	% 2,71	% 22,39	% 2,65	% 1,33	% 29,08
Osasuna	% 9,39	% 13,09	% 13,58	% 6,17	% 42,22
Herri Lana, Garraioa eta Komunikazioa	% 17,44	% 0,00	% 0,00	% 2,03	% 19,47
Landa Garapena eta Ingurumena	% 19,97	% 0,00	% 1,34	% 3,60	% 24,91
Berrikuntza, Enpresa eta Enplegua	% 5,00	% 0,00	% 1,10	% 4,75	% 10,85
Familia, Gazteria, Kirola eta Gizarte Gaiak	% 22,41	% 5,15	% 19,85	% 4,17	% 51,57
Kultura eta Turismoa – Vianako P.	% 17,89	% 1,38	% 2,88	% 3,44	% 25,58
Erakundeekiko Harremanak	% 16,40	% 0,61	% 1,62	% 8,10	% 26,72
GUZTIRA	% 7,77	% 14,29	% 7,67	% 3,78	% 33,51

– Departamentu bakoitzean aldi baterako kontratatutako langileen ehunekoak honako hauek izan dira urte bakoitzeko abuztuaren 1ean:

<i>Departamentua</i>	<i>2004</i>	<i>2005</i>	<i>2006</i>	<i>2007</i>	<i>2008</i>
Lehendakaritza, Justizia eta Barne Dep.	% 19,16	% 18,73	% 18,75	% 18,76	% 19,70
Ekonomia eta Ogasuna	% 18,12	% 19,61	% 17,96	% 15,06	% 13,55
Toki Administrazioa	% 16,18	% 16,42	% 16,42	% 17,90	% 12,53
Lurraldearen Antolamendua eta Etxebizitza	% 25,45	% 30,37	% 24,78	% 20,19	% 12,68
Hezkuntza	% 28,76	% 29,17	% 25,78	% 27,51	% 29,08
Osasuna	% 40,36	% 39,23	% 41,45	% 42,90	% 42,22
Herri Lana, Garraioa eta Komunikazioa	% 11,67	% 14,03	% 13,71	% 13,25	% 19,47
Landa Garapena eta Ingurumena	% 21,18	% 22,48	% 25,14	% 27,12	% 24,91
Berrikuntza, Enpresa eta Enplegua	% 12,59	% 10,10	% 12,78	% 13,18	% 10,85
Familia, Gazteria, Kirola eta Gizarte Gaiak	% 42,59	% 44,82	% 45,58	% 50,12	% 51,57
Kultura eta Turismoa – Vianako P.	% 29,04	% 30,86	% 32,18	% 34,06	% 25,58
Erakundeekiko Harremanak	% 29,55	% 32,45	% 30,43	% 32,30	% 26,72
GUZTIRA	% 32,12	% 32,01	% 31,78	% 33,22	% 33,51

– Nafarroako Gobernuak egoera horrekiko hartu dituen neurriak, uztailaren 15ean onetsitako hitzarmenean ageri direnak, honako hauek dira:

1.- Oro har, departamentu eta erakunde autonomo bakoitzean ekainaren 30ean okupatuta zeuden lanpostuen kopurua ezin da handitu.

2.- Pertsonala ordezkatzeko eginen diren kontratuak ahalik eta gehien murriztu. Gutxienezko

epaia hiru hilabetekoa izanen da, behar bezala justifikatutako kasuak salbu.

3.- Hezkuntza Departamentuak eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak irizpide orokor hauek bete behar dituzte plaza hutsak betetzean eta ordezkapenak egiteko kontratazioak egitean, eta beharrezko antolaketa-neurriak hartuko dituzte neurri horiek egungo zerbitzuen maila kaltetu ez

dezaten. Halaber, alor horietan egiturazko lanpostuak betetzeko kontratuak egiteko Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren baimena behar da.

4.- Azkenik, departamentu eta erakunde autonomo bakoitzak aztertu behar ditu gaur egun dauzkan egiturazko kontratuak, batez ere Hezkuntza Departamentuak eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, eta esleitzen zaizkien zerbi-

tzuak emateko beharrezkoak diren lanpostuak finkatzea proposatu behar dute.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2008ko urriaren 13an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:
Javier Caballero Martínez

Galdera, Moderna plan estrategikoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Moderna plan estrategikoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko urriaren 3ko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Aguirrebengoa Imazek galdera egin du Moderna Garapen Ekonomikoaren Eredu Berriari buruz (PES-297). Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

a) 2008ko aurrekontuetan 200.000 euroko kontusaila aurreikusten zen Moderna garapen ekonomikoaren eredu berria egiteko. Hau da kontusaila:

140000 16000 6092 931100 (**) Dibertsifikazioaren behatokia. Eredu ekonomiko berria. Plan estrategikoa.

2008an zehar handitu egin da kontusail hori "azterketa eta lan teknikoetara" bideratutako beste kontusail batzuen kargura. Zehatz-mehatz, 110.000 euro gehiago bideratu dira dibertsifikazioaren behatokira, eta Modernak, beraz, 310.000 euroko gastu-aurreikuspena du 2008rako.

Halaber, Moderna plana egiteko hainbat urtetarako gastua egitea baimendu zen, Nafarroako Gobernuaren 2008ko martxoaren 17ko akordioaren bidez. Gastu hori 450.000 eurokoa izatea aurreikusi zen (310.000 euro 2008an, eta 140.000 euro 2009an).

b) 2009an, Gobernuak plan horretara 450.000 euro bideratzea aurreikusten du.

c) 2008ko martxoan, Anain sozietate publikoak lehiaketa publikoa egin zuen lanak egiteko laguntza teknikoa kontratatzeke, eta Europar Erkidegoen Aldizkarian argitaratu zen. Monitor aholkularitza-enpresari esleitu zitzaion, Asesores Financieros Internacionales (AFI) enpresarekin lankidetzan burutzeko. Monitor mota horretako planak idazten esperientzia handia duen enpresa da, eta AFIk Nafarroako errealitatea eta bertako Administrazioa oso ondo ezagutzen ditu.

Sei enpresak hartu zuten parte lehiaketan, baina Monitor-AFIren eskaintza izan zen onena, beren kaudimen teknikoa eta eskaintza ekonomikoa kontuan hartuz gero.

Kontratuaren zenbatekoa, 2008an eta 2009an zehar, 450.000 eurokoa da.

d) Egun, Zuzendaritza Batzordeko kideek edo sustatzaileek ez dute konpromiso ekonomikorik.

Iruñean, 2008ko urriaren 14an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, jakiteko ablazioa jasandako zenbat emakume detektatu dituzten osasun sistema publikoan.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du jakiteko ablazioa jasandako zenbat emakume detektatu dituzten osasun sistema publikoan.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko urriaren 3ko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Joseba Eceolaza Latorre jaunak honi

buruzko galdera egin du: ea ablazioa jasandako zenbat emakume hauteman diren osasun-sistemari (PES-298/08). Hona Osasun kontseilariak emandako erantzuna:

1.- Emakumeen arretarako zentroetan ez da inoiz ablazioari buruzko kontsultarik izan. Are gehiago, aurrekari klinikoetan, emakumeek ez dute inoiz ablazioa aipatu ere egin.

2.- Ez dago inolako protokolorik.

Hori jakinarazteko ohorea dut, Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2008ko urriaren 15ean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, zerbitzu zorroari buruzko zenbait argitalpeni buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du zerbitzu zorroari buruzko zenbait argitalpeni buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko urriaren 3ko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Joseba Ezeolaza Latorre jaunak galdera egin du Gizarte Zerbitzuen Zorroaren gainean egindako hainbat argitalpeni buruz (PES 299-08). Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak emandako erantzuna:

Ezeolaza jaunak galdera hauek egin ditu gaiari buruz:

Zein da zerbitzu-zorroaren prestazioak jasotzen dituen argitalpen berriaren kostu zehatza?

Argitalpen horren kostua 44.000 euro ingurukoa da, eta bere helburua gizarte-zerbitzuen zorroa hedatzea da, erabilera sinpleko tresna baten bidez.

Zenbateko horretan, argitalpenaren diseinua nahiz maketazioa, 2.300 aleren inprimatze-lanak (euskaraz eta gazteleraz) eta zentzumen-urritasuna duten pertsonen erabiltzeko CD bat sartzen dira. Halaber, beste 200 sortaren inprimatze-lanak ere sartzen dira 44.000 euro horietan. Sorta horiek letra handiagoa dute, ikusmen-arazoak dituzten pertsonen erabil ditzaten.

Zein da zerbitzu-zorroari buruzko publizitate-iragarkien kostua?

– Iragarkiak prentsa idatzian jartzea: herrietako eta eskualdeetako egunkariak eta aldizkariak (15.312,55 euro). Prentsa idatzian jarritako iragarki guztietatik bi soilik izan dira koloretan, kostuak merkatze aldera; bata, Diario de Navarran, eta bestea, Diario de Noticiasen.

– Telebistan, irratan eta zineman spotak eta iragarkiak ematea: 30.501,64 euro.

– Sormena, formatu guztietan ekoiztea, lokuzioa, iragarkiak formatuetara egokitzea, euskarara itzultzea, gorrentzako azpituak: 70.530 euro.

– Guztira: 16.344,19 euro (BEZa kanpo).

Zergatik ez da sartu kontusail hori departamentu horretarako iragarri den %4ko erreserban?

Gizarte Zerbitzuen Zorroa Nafarroako Gobernuak garatutako proiektu handi bat da, eta entitate, elkarte, erakunde, alderdi politiko eta pertsona askok hartu dute parte bertan. Hala, lorpen horrek nafarrantzat legealdi honetako aurrerapen sozialik handiena dakar. Nafarroako gizarte osoa egon daiteke harro proiektu horretaz, biztanleriaren zatirik kalteberarenari zuzenduta baitago eta biztanle horien eskubide sozialak bermatzen baititu.

Baina, aldi berean, ez da ahaztu behar Gizarte Zerbitzuen Zorroa arau bat dela, zehatz-mehatz, foru dekretu bat. Beraz, zuzenbide-hizkuntzan azaldutako informazio asko eta batzuetan ulertzeko zaila suerta litekeen artikuluak ditu, are zailagoa nori zuzenduta dagoen kontuan hartzen badugu: pertsona ezinduak, adineko pertsonak, ezintasunak dituztenak, gizarteak baztertzan dituen edo gizarte-bazterketa jasateko arriskua duten pertsonak, gizarte-gatazkak dituzten edo/eta babesik ez duten adin txikikoak eta genero-indarkeriaren biktimak.

Zorroak prestazio guztietan aplikatu beharreko artikulu eta xedapen orokorrak ditu, eta, horrez gain, 140 prestazio ditu (horietatik 90 bermatutako prestazioak dira, eta beste 50, bermatu gabekoak), zortzi arlotan banatuta .

Horregatik, Zorroak informazio asko duelako, informazio hori zuzenbide-hizkuntzan idatzita dagoelako, eta esku hartzeko arloetan banatuta bermatutako prestazioak eta bermatu gabeak dituelako, bistan da beharrezkoa zela testuaren irakurketa eta ulermena erraztea. Hori dela eta, hasieratik hainbat jardura garatzea pentsatu genuen, informazio hori nafarrei ahalik eta modurik zuzenenean eta arinenean helarazteko. Informazio hori denon eskura egotea eta gertukoa izatea nahi

dugu; izan ere, gure ustez, informazio hori oinarritzakoa eta beharrezkoa da, jendeak alderdi hauek ezagut ditzan: besteak beste, zer baliabide eta laguntza dauden gizarte-zerbitzuen arloan, zer laguntza eskuratzeko eskubidea duten, laguntza horiek eskuratzeko bete behar diren baldintzak eta laguntza horiek nola eskura daitezkeen.

Hori guztia kontuan izanda, beharrezkoa zen Zorroaren edukia irakurtzen eta ulertzen laguntzen duen argitalpen bat egitea. Argitalpen horretan, zerbitzuen eta laguntzen arloak bereizita agertzen dira, nori zuzenduta dauden kontuan hartuta, modu sinple eta ezagun batean. Esate baterako, prestazioak bi koloretan agertzen dira argitalpen horretan: bermatutako prestazioek argi berdeko semaforo bat; eta bermerik gabekoek beste semaforo bat dute, laranja-koloreko argia duena.

Horrez gain, hainbat prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzek osatzen dute argitalpena; hala, jardunaldiak antolatu dira Nafarroa osoan barrena, profesional, elkarte eta herritarrentzat. Komunikabideetan publizitate-kanpaina bat egingo da; diptikoak egingo dira informazio orokorra emateko; eta herritarren arretarako hiru kanal berri zabalduko dira: zuzeneko arreta, telefono bidezkoa eta arreta telematikoa. Telefono bidezko zerbitzu berri bat ipini dugu abian, eta hemendik gutxira, beste hiru informazio- eta arreta-puntu berri zabalduko ditugu. Halaber, kolektibo jakin batzuei zuzendutako web telematiko berriak jarriko ditugu martxan.

Gizarte Zerbitzuen Zorroa gure herritarrentzat ahalik eta irisgarriena izateko egin dugu hori guztia, haiek baitira proiektu horren onuradun nagusiak. Izan ere, aurrerapen sozial hori burutzea bezain garrantzitsua da jendeak Zorroa ezagutzea eta ulertzea, bertako zerbitzuez gozatu ahal izateko. Beharrezkoa da herritarrek gizarte-sistema nola aldatu den jakitea, bai eta sistema horretara nola irits daitezkeen jakitea ere. Hori da, hain zuzen, Gizarte Zerbitzuen Zorroaren komunikazio-kanpainaren helburua.

Iruñean, 2008ko urriaren 21ean

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, Nafarroako erakundeei itzaleko dirusarien kontzeptuarengatik ordaintzeko gelditzen zaizkien baliabideei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako erakundeei itzaleko dirusarien kontzeptuarengatik ordaintzeko gelditzen zaizkien baliabideei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko urriaren 3ko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako erakundeei "itzaleko bidesari" gisa oraindik ordaindu ez zaizkien baliabideei buruz (PES-300). Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Eskatutako informazioari dagokionez, 2007ko irailean Comptos Ganberak horri buruz argitara emandako txostena, Nafarroako Parlamentu honen eskariz horretarako berariaz egina, duzu erreferentzia nagusia.

Iruñean, 2008ko urriaren 14an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, Nafarroako enpresa publikoen multzoak gaur egun duen zorrari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako enpresa publikoen multzoak gaur egun duen zorrari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko urriaren 3ko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du enpresa publikoen zorrari buruz (PES-301). Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Eskatutako informazioa Nafarroako Gobernuak 2008ko irailaren 8an onartu zituen eta Parlamentu honetara, onartuak izan zitezten, igorriak izan ziren Nafarroako Kontu Orokorretan dago eskuragarri, zehatz-mehatz azaldua, 2007ko abenduaren 31ra arteko datuez.

Iruñean, 2008ko urriaren 14an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko urriaren 10eko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du aurrekontuko zenbait kontusailletako azalpenen gauzatze-mailari, gauzatze-aurreikuspenari, egiteke dauden egozketei eta banakapenari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren eran-tzuna:

1.- Urriaren 10era bitarte, gauzatze-maila atxikita doan orrian zehazten dena da.

2.- Kontusail horien amaierako gauzatze-aurreikuspena, egozteke daudenak ze-haztuz:

Amaierako aurreikuspena gaur egun kontusail guztietan erreserbatutako kredituen %100 gauzatea da.

3.- Kontusail horiei orain arte egotzi zaizkien auzi eta azalpenen zehaztapena.

Atxikita doaz eskatutako kontusail bakoitzaren fitxak, horiei egotzitako azalpenak zehazten dituztenak.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2008ko urriaren 14an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Oharra: aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago 7-08/PES-00313 es-pedientean, web helbide honetan:

<http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/>

Galdera, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Err jaunak galdera egin du Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko urriaren 10eko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du aurrekontuko zenbait kontusailletako azalpenen gauzatze-mailari, amaierako gauzatze-aurreikuspenari, egiteke dauden egozketei eta banakapenari buruz (PES-314/08). Hona hemen Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Departamentua/Programa/Proiektua/Kontusaila	%
700001-71430-2276-468102 Nekazaritzako natura-baliabideei buruzko azterlanak	97,4
700001-71430-2276-468103 Nekazaritzako ikerketa-proiektuak	97,2
700001-71430-2276-468104 Azterlanak, inkestak eta estatistikazko bestelako lanak	84,1
720002-72140-7609-456602 Herrilurren defentsa egin eta mugak ezartzea	2,6
740001-74100-2276-456200 Azterketa eta lan teknikoak	92,1
740001-74100-7709-456900 Kutsaduraren prebentzioa eta zuzenketa	42,5
740002-74200-2129-456300 Naturguneen kontserbazioa	97,0
740002-74200-4819-456200 (**) Ingurumen-hezkuntzako programetarako dirulaguntzak	51,5
740002-74200-6019-456502 Suntsitutako baso-masak lehengoratzeko jarduerak	60,9
740003-74300-6019-452100 (**) Ibaiertzak lehengoratzeko eta ekosistemak babestea	77,7
740003-74300-6092-452102 Azterlanak eta proiektuak	98,4

Hori jakinarazten dut, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2008ko urriaren 21ean

Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, 2007-2008 eta 2008-2009 ikasturteetako zenbait eskola-daturi buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Victoria Arraiza Zorzano andreak galdera egin du 2007-2008 eta 2008-2009 ikasturteetako zenbait eskola-daturi buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko urriaren 24ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari M.^a Victoria Arraiza Zorzano andreak galdera egin du 2007-2008 eta 2008-2009 ikasturteei buruzko datuak eskatuz (PES-336). Hona hemen erantzuna:

– 2007/2008 eta 2008/2009 ikasturteetako eskolatzeko datuak.

	2007/08		2008/09	
	IK	TAL	IK	TAL
Haur Hezkuntza	24.386	1.420	25.121	1.471
Lehen Hezkuntza	35.892	1.843	37.039	1.914
DBH	22.391	976	23.028	998
Batx.	7.205	301	6.995	295
EMHZ	3.086	151	3.411	178
GMHZ	2.941	161	3.112	167
GUZTIRA	95.901	4.852	98.706	5.023

07-08 ikasturtearenak Hezkuntza Departamentuaren eta Hezkuntza, Gizarte Politika eta Kirol Ministerioaren (MEPSYD) estatistika-datuak dira.

2008-09 ikasturtearen datuak Educarenak dira. 2008ko irailean egindako kontsulta.

Hezkuntza Bereziko ikasleen datuak ez dira jaso.

– Itunpeko (eta diruz lagundutako) unitateak, Nafarroan 2007-2008 eta 2008-2009 ikasturteetan funts publikoek babestutako ikastetxeetan.

2007/2008 ikasturtea	HH	LH	DBH	Batxilergoa	Guztira
Itundua	292	536	346	102	1.276
Diruz lagundua (Mintegiak)			8	2	10
GUZTIRA	292	536	354	104	1.286

Horrez gain, Baztango Ikastolan (publikoa) Haur Hezkuntzako 2 unitate eta Lehen Hezkuntzako 6 diruz lagunduko dira.

2008/2009 ikasturtea	HH	LH	DBH	Batxilergoa	GUZTIRA
Itundua	299	545	347	102	1.293
Diruz lagundua (Mintegiak)			8	2	10
GUZTIRA	299	545	355	104	1.303

Horrez gain, Baztango Ikastolan (publikoa) Haur Hezkuntzako 2 unitate eta Lehen Hezkuntzako 6 diruz lagunduko dira.

Iruñean, 2008ko urriaren 24an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas
López de Goicoechea

Galdera, Xabier Zubiri Eskualdeko Ikastetxe Publikoaren errotulazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Luisa Mangado Cortes andreakMaría Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du Xabier Zubiri Eskualdeko Ikastetxe Publikoaren errotulazioari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko urriaren 17ko 90. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Honako hau jakinarazten da:

1. Nafarroako Gobernuaren plaka normalizatua paratu da jada, non ikastetxearen izen ofiziala –Colegio Público de E.I. y Primaria “Xavier Zubiri” Haur eta LHko Ikastetxe Publikoa– nahiz Hezkuntza Departamentuaren eta Esteribarko Udalaren aipamena ageri baitira.

2. Errotulazio zaharra kentzea eraikinaren titularrari dagokio, kasu honetan Esteribarko Udalari.

3. Obra eta Mantentze Lanen Zerbitzuak errotulazio zaharra ken dezan eskatu dio Esteribarko Udalari.

Iruñean, 2008ko urriaren 14an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Galdera, jakiteko zenbat enpresa sortu diren 2005, 2006 eta 2007. urteetan, zenbat lanpostu sortu diren, zein jarduera-sektoretan jarduten duten eta non dauden.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du jakiteko zenbat enpresa sortu diren 2005, 2006 eta 2007. urteetan, zenbat lanpostu sortu diren, zein jarduera-sektoretan jarduten duten eta non dauden.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko urriaren 10eko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Jose Angel Agirrebengoa Imaz jaunak informazioa eskatu du 2005, 2006 eta 2007 urteetan sortutako enpresei, sortutako enpleguei eta

enpreson jarduera-sektore eta kokapenari buruz (PES-00307). Hona hemen Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak enpresen sorrerako erregistro bat du Arriskuen Prebentziorako eta Lanaren Zuzendaritza Nagusiaren mende; erregistro horretan, zabalitzen diren lantokiak jasotzen dira.

Erregistroak jarraian aurkeztuko den informazioa eskaintzen du, urtez urte. Datuek adierazten dutenez, enpresen sorrerak bilakaera positiboa izan du Foru Komunitatean: 2005ean 4.679 enpresa zeuden, eta 2007an, berriz, 5.599. Ildo beretik, enpresa berrien edo lehendik zeudenen hazkundearen eraginez, enplegu-kopuruak ere gora egin du, 25.366tik 31.717ra.

Iruñean, 2008ko urriaren 24an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Hilez hileko bilakaera

Hilak	Berriak		Lehendik zeudenak		Guztizkoak	
	Enpresak	Langileak	Enpresak	Langileak	Enpresak	Langileak
URTARRILA	147	408	334	2.519	481	2.927
OTSAILA	146	349	353	2.953	499	3.302
MARTXOA	140	377	414	2.505	554	2.882
APIRILA	104	296	294	1.983	398	2.279
MAIATZA	120	479	366	2.098	486	2.577
EKAINA	155	404	371	2.303	526	2.707
UZTAILA	85	243	344	2.538	429	2.781
ABUZTUA	38	87	359	2.354	397	2.441
IRAILA	62	245	421	2.427	483	2.672
URRIA	121	268	470	2.835	591	3.103
AZAROA	115	320	339	2.056	454	2.376
ABENDUA	74	194	227	1.476	301	1.670
GUZTIRA	1.307	3.670	4.292	28.047	5.599	31.717

Irekiak jardueraren arabera. 2007. urtea

Jarduera	Berriak		Lehendik zeudenak		GUZTIRA	
	Enpresak	Langileak	Enpresak	Langileak	Enpresak	Langileak
Nekazaritza eta abelzaintza	23	72	25	189	48	261
Elikagaien industria	1	1	13	281	14	282
Ehngintza eta zapatagintza	7	15	4	21	11	36
Zuraren industria	10	17	19	60	29	77
Paper industria	10	23	7	28	17	51
Industria kimikoa	4	17	4	37	8	54
Transformazioaren industria	3	3	1	1	4	4
Mineral ez metalikoak ekoizteko industria	8	9	81	412	89	421
Metalen transformaziorako industria	37	110	98	645	135	755
Energia eta ura	6	14	71	663	77	677
Eraikuntza	489	2.033	3.609	24.472	4.098	26.505
Merkataritza	237	475	118	331	355	806
Ostalaritza	167	322	30	120	197	442
Garraioak eta komunikazioak	54	71	26	121	80	192
Finantza erakundeak	16	22	20	53	36	75
Zerbitzuak	235	466	166	613	401	1.079
GUZTIRA	1.307	3.670	4.292	28.047	5.599	31.717

Hilez hileko bilakaera

Hilak	Berriak		Lehendik zeudenak		Guztira	
	Enpresak	Langileak	Enpresak	Langileak	Enpresak	Langileak
URTARRILA	160	452	268	1.429	428	1.881
OTSAILA	108	244	297	2.013	405	2.257
MARTXOA	137	325	352	2.530	489	2.855
APIRILA	133	358	241	1.501	374	1.859
MAIATZA	126	423	356	2.170	482	2.593
EKAINA	150	370	361	2.351	511	2.721
UZTAILA	64	318	289	1.682	353	2.000
ABUZTUA	86	109	323	1.403	409	1.512
IRAILA	105	39	338	496	443	535
URRIA	136	16	387	219	523	235
AZAROA	145	175	390	1.317	535	1.492
ABENDUA	76	205	200	1.259	276	1.464
GUZTIRA	1.426	3.034	3.802	18.370	5.228	21.404

Irekierak jardueraren arabera. 2006. urtea

Jarduera	Berriak		Lehendik zeudenak		Guztira	
	Enpresak	Langileak	Enpresak	Langileak	Enpresak	Langileak
Nekazaritza eta abeltzaintza	38	55	26	42	64	97
Elikagaien industria	11	51	8	8	19	59
Ehngintza eta zapategintza	7	8	3	5	10	13
Zuraren industria	18	20	28	116	46	136
Paper industria	5	11	6	11	11	22
Industria kimikoa	2	1	2	2	4	3
Transformazioaren industria	3	3	0	0	3	3
Mineral ez metalikoak ekoizteko industria	14	22	114	508	128	530
Metalen transformaziorako industria	49	130	108	745	157	875
Energia eta ura	3	1	16	74	19	75
Eraikuntza	538	1.659	3.154	15.410	3.692	17.069
Merkataritza	267	344	129	578	396	922
Ostalaritza	136	248	19	32	155	280
Garraioak eta komunikazioak	69	90	29	133	98	223
Finantza erakundeak	13	24	11	26	24	50
Zerbitzuak	253	367	149	680	402	1.047
GUZTIRA	1.426	3.034	3.802	18.370	5.228	21.404

Hilez hileko bilakaera

Hilak	Berriak		Lehendik zeudenak		Guztira	
	Enpresak	Langileak	Enpresak	Langileak	Enpresak	Langileak
URTARRILA	122	349	238	1.411	360	1.760
OTSAILA	118	299	318	1.739	436	2.038
MARTXOA	123	307	261	1.424	384	1.731
APIRILA	130	289	321	1.945	451	2.234
MAIATZA	134	426	324	2.110	458	2.536
EKAINA	128	256	287	1.866	415	2.122
UZTAILA	91	234	217	1.716	308	1.950
ABUZTUA	78	252	249	1.902	327	2.154
IRAILA	104	273	326	2.138	430	2.411
URRIA	134	500	264	1.424	398	1.924
AZAROA	123	379	307	2.739	430	3.118
ABENDUA	84	190	198	1.198	282	1.388
GUZTIRA	1.369	3.754	3.310	21.612	4.679	25.366

Irteerak jardueraren arabera. 2005. urtea

Jarduera	Berriak		Lehendik zeudenak		Guztira	
	Enpresak	Langileak	Enpresak	Langileak	Enpresak	Langileak
Nekazaritza eta abeltzaintza	32	35	17	64	49	99
Elikagaien industria	13	44	11	188	24	232
Ehungintza eta zapatagintza	6	11	4	15	10	26
Zuraren industria	19	120	15	80	34	200
Paper industria	5	5	3	4	8	9
Industria kimikoa	2	9	1	27	3	36
Transformazioaren industria	3	4	11	67	14	71
Mineral ez metalikoak ekoizleko industria	17	27	80	452	97	479
Metalen transformaziorako industria	34	186	82	730	116	916
Energia eta ura	4	23	58	143	62	166
Eraikuntza	457	1.789	2.671	16.991	3128	18.780
Merkataritza	239	380	160	399	399	1.800
Ostalaritza	164	327	29	76	193	403
Garraioak eta komunikazioak	76	96	28	240	104	336
Finantza erakundeak	10	13	13	39	23	52
Zerbitzuak	288	685	127	1076	415	1.761
GUZTIRA	1.369	3.754	3.310	21.612	4.679	25.366

Galdera, Funes aldean Arga ibaira botatzen diren hondakinei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Funes aldean Arga ibaira botatzen diren hondakinei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko urriaren 10eko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Funes parean gertatu diren Arga ibairako isurketei buruz (PES-303). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren Zaintzak eta irailaren 10ean egindako ikuskapen-bisita batean teknikariek bildutako informazioa oinarri harturik, badirudi, zantzu guztien arabera, heriotzen eragilea tomatearen transformazio-prozesuko hondakin-uren isurketa bat izan zela, Taboada Grupo Alimentario, S.L. enpresak egina.

Enpresaren ur-hondakinak Behe Argako araztegiaren tratatzea aurreikusi da. Horretarako, jardue-ra sailkatuko espediente bat izapidetu zuen enpresak, eta haren aldeko irizpena eman zen 2007ko apirilaren 11ko 120 Ebazpenaz, zeinak isurketa aipatu araztegiara egitea xedatu baitzuen, eraiki

berria zen kolektore baten bidez. Aldi baterako, Arga ibaiaren antzinako ohera isurtzea baimendu zen, betiere ezarritako gehieneko emisio-balioak gainditu gabe; horretarako, enpresak aurretratatamenduko instalazio bat eraiki behar zuen. Aurreikusitakoa, birzirkulatutako lohi aktibatuen tratamendu biologikoko instalazio bat da.

Egindako ikuskapenean egiaztatu zen enpresak ez zuela 2007ko abuztuaren 31 baino lehen gauzatua beharko zukeen instalazioa eraiki. Hori dela-eta, abenduaren 28ko 93/2006 Foru Dekretuak, Ingurumena Babesteko Esku-Hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea garatzeko Erregelamendua onesten duena, 131. artikuluan aurreikusitako izapidea abiatu du, eta Funesko Udalari ustezko arau-urratzea jakinarazi zaio, dagokion espediente zigortzailea abiatzeko borondatea berariaz adieraz dezan. Jakinarazpena egin eta hilabeteko epean Udalak erantzuten ez badu edo aukera horri berariaz uko egiten badio, eskumen zigortzailea Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak baliatuko du.

Ikuskapen-txostenaren eta Zaintzaren aktaren kopia bana erantsi dira.

Hori jakinarazten dut, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2008ko urriaren 27an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Oharra: aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago 7-08/PES-00303 espedientean, web helbide honetan:

<http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/>

